

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2020ko urriaren 17tik 26rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

2020/10/26

- **XEDAPEN OROKORRAK. – LEHENDAKARITZA.** - 36/2020 DEKRETUA, 2020ko urriaren 26koa, lehendakariarena, zeinaren bidez osasun publikoko prebentzio-neurriak hartzen baitira Alarma-egoeraren adierazpenaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapenari eusteko. **4490 xedapena - 12 or.**

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2020/10/17

- **INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO MINISTERIOA. - Ibilgailu automobilak. Premiazko neurriak.** - ICT/971/2020 Agindua, urriaren 15ekoa, zeinaren bidez garatzen den Espainiako parke zirkulatzaila 2020an berritzeko programa (Renove 2020 Plana) eta ekonomia suspertzeko eta enplegua sortzeko premiazko neurriei buruzko uztailaren 3ko 25/2020 Errege Lege-dekretuaren II. eranskina aldatzen den. **2020-12463 xedapena - 12 or.**

2020/10/22

- **GORTE NAGUSIAK.**
 - **Urrutiko lana.** - Ebazpena, 2020ko urriaren 15ekoa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila urrutiko lanari buruzko irailaren 22ko 28/2020 Errege Lege-dekretuaren baliozkotze akordioa. **2020-12689 xedapena - 1 or.**
 - **Premiazko neurriak.** - Ebazpena, 2020ko urriaren 15ekoa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila irailaren 29ko 29/2020 Errege Lege-dekretuaren baliozkotze akordioa. Horren bidez, Administrazio Publikoetako telelanaren arloko eta Osasun Sistema Nazionaleko giza baliabideen arloko premiazko neurriak hartzen dira, COVID-19ak eragindako osasun krisiari aurre egiteko. **2020-12690 xedapena - 1 or.**

- **Neurri sozialak.** - Ebazpena, 2020ko urriaren 15koa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege-dekretuaren baliozkotze akordioa. Horren bidez, enpleguaren aldeko neurri sozialak hartzen dira. **2020-12691 xedapena - 1 or.**
- **Premiazko neurriak.** - Ebazpena, 2020ko urriaren 15koa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila irailaren 29ko 31/2020 Errege Lege-dekretuaren baliozkotze akordioa. Horren bidez, premiazko neurriak hartzen dira unibertsitatez kanpoko hezkuntzaren esparruan. **12692 xedapena - 1 or.**

2020/10/23

- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA BERDINTASUNAREN MINISTERIOA. - Ibilgailuak. Araudia** - 885/2020 Errege Dekretua, urriaren 6koa, zeinaren bidez ezartzen diren ibilgailu motordunen eta atoiaren matrikula-plakak merkaturatzeko eta zerbitzuan jartzeko baldintzak, eta abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onartutako Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra aldatzen den. **2020-12767 xedapena - 20 or.**

2020/10/25

- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA MEMORIA DEMOKRATIKOAREN MINISTERIOA. - Alarma-egoera.** - 926/2020 Errege Dekretua, urriaren 25koa, alarma-egoera deklaratzeko duena, SARS-CoV-2 koronabirusak eragindako infekzioen hedapenari eusteko. **2020-12898 xedapena - 8 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2020/10/23

- **OSASUN SAILA**
 - AGINDUA, 2020ko urriaren 22koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez osasun publikoaren arloko neurri bereziak hartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat udalerritan eta oinarritzeko osasun-eremutan sortutako COVID-19 pandemiaren agerraldi epidemikoa geldiarazteko. **4447 xedapena - 7 or.**

- AGINDUA, 2020ko urriaren 22koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez osasun publikoko prebentzio-neurriak hartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoan, COVID-19ak eragindako egoera epidemiologikoaren bilakaera dela eta. 4448 xedapena - 13 or.

A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

2020/10/19

- **ZERGA PREMIAZKO ARAUGINTZAKO DEKRETUAK.** - Foru Gobernu Kontseiluaren 13/2020 Zerga premiazko araugintzako Dekretua, urriaren 13koa. Onespena ematea Balio Erantsiaren gaineko Zerga doitzeko neurriei, COVID-19ren ondorioz. 3039 xedapena - 8 or.
- **DIPUTATU NAGUSIAREN FORU DEKRETUAK.** - Diputatu Nagusiaren 322/2020 Foru Dekretua, urriaren 9koa. Onestea nekazaritza ustategietara sartzeko bideetarako eta landa bideetarako 2020ko laguntzen aparteko deialdia, apirileko eta ekaineko ekaitzek kaltetutako bideak konpontzeko. 3025 xedapena - 3 or.

2020/10/21

- **FORU AGINDUAK (GIZARTE POLITIKEN SAILA).** - 140/2020 Foru Agindua urriak 9koa, 137/2020 Foru Agindua aldatzen duena, irailaren 23koa, adinekoen eta desgaitasuna duten pertsonen egoitzetako bisitak eta irteerak Arabako lurralde historikoan arautzen dituen, Covid-19ren osasun-krisiak iraun bitartean. 3050 xedapena - 3 or.

2020/10/23

- **FORU ARAUAK.** - 15/2020 Foru Araua, urriaren 14koa, 10/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, irailaren 8koa, baliozkotzeko dena, onesteko Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauaren eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko martxoaren 31ko 11/2003 Foru Arauaren aldaketak, COVID-19aren ondorioz. 3078 xedapena - 1 or.

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2020/10/19

- **EKONOMIA SUSTATZEKO SAILA.** - Bizkaiko Foru Aldundiaren 90/2020 FORU DEKRETUA, urriaren 13koa, zeinaren bidez konkurrentzia libreko dirulaguntzen programaren deialdi publikoa eta oinarri arautzaileak onesten baitira, COVID-19aren

krisiak ukitu dituen turismo-sektoreko enpresa txiki eta ertain eta autonomoentzat.
(Akats zuzenketa). 660 xedapena - 19 or.

2020/10/21

- **HERRI ADMINISTRAZIORAKO ETA ERAKUNDE HARREMANETARAKO SAILA.** - Herri Administrazioako eta Erakunde Harremanetarako Saileko foru diputatuaren 6909/2020 FORU AGINDUA, urriaren 6koa. honen bidez, aldatu egiten da maiatzaren 22ko 4041/2015 Foru Agindua, Bizkaiko Foru Aldundiaren zigilu elektronikoa sortzen duena. 652 xedapena - 2 or.

2020/10/22

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** - Ogasun eta Finantzen foru-diputatuaren 1738/2020 FORU AGINDUA, urriaren 19koa, zeinaren bidez garatzen baita 1/2020 Foru Dekretu Arauemailea, martxoaren 17koa, COVID-19aren ondoriozko presazko tributu-neurriei buruzkoa, tributu-zorren salbuespenezko gerorapenei dagokionez. 664 xedapena - 3 or.

2020/10/23

- **HERRI ADMINISTRAZIORAKO ETA ERAKUNDE HARREMANETARAKO SAILA.** - Bizkaiko Foru Aldundiaren 89/2020 FORU DEKRETUA, urriaren 13koa, Ahalordetzeen Erregistro Elektronikoko Orokorra sortu eta arautzen duena. 659 xedapena - 9 or.

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - 48009 BILBAO